

Udalak baratza profesionalak prestatu ditu langabezia dauden pertsonentzat



URBAN LUR

6 baratze-partzela
parcelas hortícolas

4.000 - 6.000 m²

%100era bitarteko hobariak lehen urtean zehar.
Bonificaciones de hasta el 100% durante el primer año.

Ura, negutegi-tunelak.
Agua y túneles invernadero.

Prestakuntza tekniko.
Formación técnica.

Merkaturatzeko laguntza.
Apoyo en la comercialización.

NEKAZARITZAKO EKINTZAILETZARAKO PROGRAMA
PROGRAMA PARA EL EMPRENDIMIENTO AGRÍCOLA

- Audituz Akularren kokatzen dira.
- Lehen urtean, lursaila doakoa izango da.
- Produktzioa supermerkatu nagusietan banatzea erraztuko da.

Alkateordetzak, Donostiako Sustapenaren bitartez, Donostia Urban Lur proiektua abian jarri du, nekazaritza-sektorea ezagutzea sustatzeko asmoarekin. Hain zuzen ere, nekazaritzako produktuen ekoizpenean oinarritutako enpresa-proiektua abian jarri nahi duten herritarren eskura ondorengoak jarriko ditu: laborantzarako lursaila eta azpiegitura egokiak, lana egiteko tresnak, nekazaritza eta negozio arloko prestakuntza teknikoa eta produktuak merkaturatzeko laguntza eta aholkularitza.

Ernesto Gasco alkateordeak ondorengo adierazi du: “ekimenaren bitartez, Donostiak hiriko nekazaritza-sektorea aintzatesteko bidea egiten jarraitzen du. Guztiona Klusterrarekin gure

inguruneko ekoizleak bildu genituen, eta jarduera honekin, tokiko ekoizpenaren ahalmena areagotu nahi dugu, barne-kontsumoa hornitzearren. Gainera, dagoeneko harremanetan jarri gara supermerkatuen kate batzuekin, produktuen banaketa bermatze aldera.

Donostia Urban Lur proiektuak sei pertsona ekintzaileri 2,74 hektareako espazioa eskaintzen die, 4.000 eta 6.000 metro karratu arteko sei partzelatan zatituta. Horiek guztiek ur-hornidura, 380 metroko negutegi-tunela eta ibilgailu mekanikoentzako sarbidea dituzte. Halaber, Fraisoro eskola profesionalak nekazaritzako prestakuntza teknikoaren ibilbidea eskainiko die erabiltzaileei, edota ekintzailera-proiektua gauzatzeko enpresa-prestakuntza eta produktuak merkaturatzeko aholkularitza eta laguntza ere bai. Dagoeneko jarri dira harremanetan zenbait supermerkatu-katerekin, tartean, baratzeako ekoizpenaren banaketa-kanala ezartzearen.

Partzelen alokairuaren onuradunak izateko aukera izango dute oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek. Partzelak esleitzeko, ondorengo alderdiak baloratuko dituen puntuazio-sistema izango da kontuan:

- Aurkeztutako proiektuaren diseinua eta kalitatea.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Proiektuaren garapen iraunkorra: ekoizpen ekologikoko ustiapenak.
- Prestakuntza. Prestakuntza espezifiko beharrezkoa ez den arren, nekazaritzarekin lotutako ikasketak kontuan hartuko dira.

Baratza hiru urteko denboraldirako emango da; lehen urtean %100eko hobaria izango da, eta gainerakoetan hilero 350 €-ko errenta ordaindu beharko da.

Altzako Auditx Akularren kokatutako partzelak egokitzeko lanak gaur, asteartean, hasiko dira; bideak eta sarbideak egokituko dituzte, urak kanalizatu eta denek erabiltzeko espazio bat eraikiko dute, tresnak eta nekazaritzako makineria gordetzeko. Interesatuak eskaera egin ahal izango dute Donostiako Sustapenaren web orrialdean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

